

FUNTSEZKO ELKARTEA

Gure proiektua aurrera egiteko, gure proiektuaren bazkide nagusiak proiektua sortu dugun pertsona berdinak izango gara; hau da, Jone, Iraide, Iria, Lucia eta Leizadi. Bakoitzak funtsezko baliabide batean arituko da: Iriak makilaren diseinu pertsonalizatuak sortuko ditu, Jonek eta Iraidek, hornitzaileekin eta kontratatuko ditugun langileekin harremanetan jarriko direnak eta makilak egiteko materiala bilatuko dutenak izango dira eta azkenik, Luciak eta Leizadik, webguneaz eta dendaz arduratuko direnak izango dira, kontratatuko ditugun langileen laguntzarekin. Aldi berean, gure produktuaren ekoizpena esternalizatuko dugu, hau da, gure hornitzailea kanpo fabrika bat izango da, gure produktuen ekoizpena egiteko.



Jonek eta Iraidek aukeratu duten hornitzaileekin akordioak egingo ditugu. Kontratu argi eta zehatzak egingo ditugu, erantzukizun, epe eta kostu guztiak zehaztuko dituztenak, gure enpresaren informazio konfidentziala babesteko segurtasun-neurriak daudela ziurtatzeko. Horrekin, dauden arrisku guztiak murriztu ahal izango ditugu. Gure produktua ekoizteko behar ditugun baliabideak eta materialak eskuratzeko beste hornitzaile batzuk behar izango ditugu. Hornitzaile horiekin beste kontratu desberdin sinatu behar ditu.

